



HEZKUNTZA SAILEKO LANGILERIAREN KUDEAKETARAKO ZUZENDARIAREN 2018ko MAIATZAREN 18KO EBAZPENA, SAIL HORRETAKO LAN-LEGEPEKO IRAKASKUNTZA- ETA HEZKUNTZA-PERTSONALAREN PRESTAKUNTZARAKO 2016ko EKITALDIAREN FONDOAREN BANAKETA ARGITARA EMATEN DUENA.

RESOLUCIÓN DEL DIRECTOR DE GESTIÓN DE PERSONAL DEL DEPARTAMENTO DE EDUCACION 14 DE MAYO DE 2018, POR LA QUE SE HACE PUBLICA LA DISTRIBUCIÓN DEL FONDO DE FORMACIÓN DEL PERSONAL LABORAL DOCENTE Y EDUCATIVO CORRESPONDIENTE AL EJERCICIO 2016.

GERTAKARIA: 2018ko maiatzaren 11ean bilera bat egin zuen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko lan-legepeko irakaskuntza- eta hezkuntza-pertsonala kolektiboaren batzorde paritarioak, prestakuntzarako fondoa administratzeko eta zalantzako egoerak behin-betikoz ebazteko.

RESULTANDO que, con fecha 11 de mayo de 2018, se reunió la Comisión Paritaria del Colectivo del personal laboral docente y educativo del Departamento de Educación, del Gobierno Vasco, para la administración del Fondo de Formación, así como para la resolución con carácter definitivo de los supuestos controvertidos.

GERTAKARIA: pertsonal horrentzako hitzarmen kolektiboak 57.3. artikuluan xedatutakoaren arabera, urteko 4.500 €ko fondo bat emango da Hezkuntza Bereziari lotutako beste ikastaro batzuk finantzatzeko.

CONSIDERANDO que el artículo 57.3 del Convenio Colectivo de este personal, prevé un fondo anual de 4.500€ para la financiación de otros cursos relacionados con la Educación Especial.

GERTAKARIA: eskatutako dirulaguntzen zenbatekoak gainditzen du dagoen kopurua eta, horregatik, kalkulatzeko, % 100ko ehunekoa aplikatu da.

CONSIDERANDO que el importe de las ayudas solicitadas es superior a la cantidad disponible, para el cálculo de las mismas se ha aplicado el porcentaje del 100%.

GERTAKARIA: Apirilaren 11ko 79/2017 Dekretuak (2017ko apirilaren 21eko EHAA, 76 zenbakiduna), Hezkuntza, Saileko egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak 10. 2 o. ataleko n) idazatian dio Langileriaren Kudeaketarako Zuzendaritzari ematen dizkio pertsonalaren burutza eta ohiko administrazio- eta kudeaketa-egintzen ardura.

CONSIDERANDO El Decreto 79/2017, de 11 de abril, (BOPV nº 76, de 21 de abril de 2017), por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Educación, en el apartado n) de su artículo 10. 2 o, atribuye a la Dirección de Gestión de Personal la jefatura de personal y los actos de administración y gestión ordinaria.

EBATZI DUT

RESUELVO

Lehena.- Argitara ematea 2016ko ekitaldirako lan-legepeko irakaskuntza- eta hezkuntza-pertsonalaren prestakuntzarako fondoaren banaketa.

Primero. Hacer pública la distribución del Fondo de Formación del Personal laboral docente y educativo del ejercicio 2016:

- I. eranskina: emandako dirulaguntzak, haien zenbatekoekin.
- II. eranskina: atzera botatako eskaerak, arrazoia adieraziz.

Anexo I: Ayudas concedidas con los importes correspondientes

Anexo II: Solicitudes desestimadas con indicación del motivo.



Bigarrena.- emandako dirulaguntzen zenbatekoa langile bakoitzaren nominan ordaintzeko agindua ematea.

Segundo. Ordenar el abono del importe de las ayudas concedidas en la nómina de cada trabajador/a.

ERREKURTSOAK

Ebazpen honen kontra, administrazio-bidea ixten duena, dagokion Lan Arloko Epaitegian demanda aurkez dezake, bi hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

RECURSOS

Contra la presente Resolución, que agota la vía administrativa, se podrá interponer demanda ante el Juzgado de lo Social que corresponda, en el plazo de dos meses a contar a partir del día siguiente a su notificación.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko maiatzaren 14

LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**JON AGIRRE HUERGA**